



GABONAK
2022
gehigarrni berezia





Peregrinus

Garagardotegia

•Plater konblnatuak •Sandwichak •Hanburesak •Pintxoak



•Kafeak eta opilak
•Eguneko menuak

CAFE-BOULEVARD-JATETXEA



Razioak, pintxoak, bokatak
eta eguneroko menua.

txinparta

SAGARDOTEGIA
JATETXEA



Urbil merkataritza gunea

GALTZAGORRIEN ESKUTIK IRITSIKO DIRA OLENTZERO ETA MARIDOMINGI

Gabonetako ikazkin maiteena noiz iritsiko zain dira gaztetxoak. Abenduaren 23an pasatuko da Aginagatik. 18:00k aldera, Sekañako bigurutzeko inguruan egongo da menditik etorritako Olentzero, eta bertatik, Eliza Zaharrerako bidea egingo du. Eliza Zaharrean, haur eta gaztetxoek aukera izango dute eskutitzak zuzenean ikazkinari emateko.

Usurbila abenduaren 24an etorriko da Maridomingirekin batera, Kalezartik barrena. Kaxkorako bidea hartuko dute gero, 17:00k aldera. Ibilbidea hau izango da: Errekatziki, Bordaberri, Puntapax, frontoia.

Olentzero eta Maridomingi herriko kaleetan zehar ibiliko dira, galtzagorriak lagun dituztela, haurrak agurtu eta haien ahotik aurtengorako nahiak eta eskaerak jasotzeko. 18:00ak aldera iritsiko dira Dema plazara. Ondoren mendira itzuliko dira, gauean haurrei opariak emateko garaiz ibiltzeko.

Aginagan, Santuenean eta Zubietan

Abenduaren 24an, Olentzero Usurbila etorri baino lehen, Aginagan kantu-jira



Abenduaren 24an 17:00k aldera iritsiko dira Kalezartik barrena, Kaxkorako bidea hartuta.

osatuko dute etxe etxe elizatik abiatuta. Goizeko 9:00etan izango da hori, eta 15:00ak aldera, Aginagako Kaxkoan izango dira. Santuenean ere, goizean zehar

kantari ibiliko dira.

Zubietan arratsaldeko 16:00etan kantu eskea antolatu du herritar talde batek. Artzabaletatik abiatuko dira.

IKASLEEN KANTU-JIRAK

Abenduak 22, osteguna

■ Goizean zehar, Udaregi Ikastolako San Tomas festa eta kantu-jirak herrian barrena.

■ Antolatzailea: Udaregi Ikastola.

Abenduak 23, ostirala

■ Goizean zehar, Aginagako eta Zubietako eskolako kantu saioak.

■ 18:00 Olentzeroren etorrera Aginagara Sekañatik. Gutun bilketa Eliza Zaharrean.



Udaregiakoak abenduaren 22an aterako dira.

ABENDUAREN 26TIK 28RA, GABONETAKO HAUR PARKEA OIARDO KIROLDEGIAN

Gabon hauetan, haurrek gabonetako Haur Parke ederraz gozatzeko aukera izango dute Oiardo kiroldegian.

Abenduko azken egunetan izango da aurtengo Haur Parkea 2-12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Abenduaren 26, 27 eta 28an izango da, astelehenetik asteazkenera, alegia, biak barne, goiz eta arratsaldez. 11:00-13:00 bitartean egongo da zabalik goizez, eta 16:30-19:30 arratsaldez. Usurbilgo Udala arduratuko da aurten ere, ekimen hau antolatzeaz.



Goizez 11:00-13:00 bitartean egongo da zabalik. Eta arratsaldez, 16:30etik 19:30era.

ZORIONAK **Cambridgeko** azterketak gainditu dituzuen guztioi !


tobyngana
english SCHOOL



Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre

Advanced CAE

Ane Arruti
Enara Arrospide
Haritz Korta
Hodei Jauregi
Ion Ventosa
Jon Elosegui
Leire Furundarena
Libe Olasagasti
Unax Arrospide
Olatz Zabaleta

First Certificate FCE

Leire Fernandez (level C1)	Peru Iraeta
Udane Leon (level C1)	Peru Agirresarobe
Aitor Martin	Oier Eleta
Harri Agirresarobe	Oier Ikatzeta
Ibai del Rincon	Unax Urkia
Ixone Santxez	Yeray Ordoki
Joritz Illaramendi	
Koldo Borda	
Maren Lasa	
Nora Martinez	



Merry Christmas
and Happy New Year!

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIRA, GAZTELEKUKO LAGUNEKIN BATERA

Gaztelekutik Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira bisita egingo dute abenduko bi egunetan, abenduaren 26an astelehena eta abenduaren 29an osteguna. Arratsaldez izango dira bi irteerak, 16:00-21:00 bitarte. Adin libreko irteerak izango dira, hau da, DBH1 eta DBH4ko ikasleek ondoen datorkien eguna aukera dezakete.

25eko taldeak

Orain arte, gehienetan irteera bakarra egin izan dute, baina interesa erakutsi duen gazte kantitateagatik, bi irteera egi-

tea erabaki dute, gehienez 25eko taldeak osatu asmoz.

Gurasoen baimena behar da

Zerrendak oraindik irekita daude, baina ez da leku gehiegirik geratzen. Hala ere, izena emateko garaian, hurrek gurasoen baimen idatzia beharko dute. Orrialdea Gaztelekuan bertan egongo da eskuragarri.

Informazio gehiagorako:

gaztelekua@usurbil.eus
943 371 050.




Izena ematerakoan, gurasoen baimena behar da.



Ondo pasa gabonetan!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

**AIZPURUA
OKINDEGIA**

OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK

Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20

KIROL PIXKA BAT, URTEA AMAITU AURRETIK

Aurten ere, 2022 urteari agur esateko Hurbilago Usurbilgo ostalarien eta merkatarien elkarteak San Silbestre herri lasterketa antolatu du. Izen-ematea doan izango da, eta bi modutara eman daiteke izena: gertuago.eus atarian edota egunean bertan lasterketa hasi baino lehen. Frontoian elkartuko dira arratsaldeko 17:00etan korrika egin nahi duten guztiak.

'650 Usurbil Bizi' otarren zozketa

Lasterketaren amaieran oparien banaketa egingo dute, bai eta "650 Usurbil Bizi" herriko ekoizle eta sortzaileen produktuez hornituriko otarren zozketa ere.



Urtea herri merkataritza eta ostalaritzaren alde lasterka agurtzeko deia egin dute abenduaren 31rako.

Auto Guria s.l

Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

guria

guria

taberna

Ondo pasa gabonetan!

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

ANTONIO URRUZOLA AROSZTEGIA

Zorionak eta
urte berri on!

Tel.: 943 376 415

Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industrialdea, 3.

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

Ondo pasa
Gabonetan!



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIKUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

 **Inaki
Iturgintza**

Ondo pasa
gabonetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

info@inakiliturgintza.com - www.inakiliturgintza.com

mur
errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

'AXARKO', ANDATZA INGURUAN BIZI DEN KUADRILLA BATEN LEHEN ABENTURA

Duela hiru asteko NOAUA!rekin batera 'Axarko' izeneko ipuina banatu genuen. Euskaraz egina, kalitatezkoa, gaztetxoek gozamenerako pentsatua. Ainara Azpiazu Aduriz Axi Kabienero artista dago argitalpen eder honen atzean. Ale gehiago behar badituzue, NOAUA!ra etorri bila.

Udaren hasieran NOAUA!ren enkargua jaso zenuen: gaztetxoentzako ipuin bat osatzeta. Nola hartu zenuen proposamena eta nolakoa izan da 'Axarko' plazaratu arteko bidea?

Ainara Azpiazu 'Axi': Pozez hartu nuen, denbora tarte majoa eskaini zenidatelako. Hori oso garrantzitsua da gauzak nahi bezain ondo egiteko. Proposamena jaso bezain pronto, ipuina Usurbilekin lotzeko ideia etorri zitzaidan burura. Bestetik, baditugai batzuk horrelakoetan jorratu nahi izaten ditudanak. Natura, bertako landaretza eta bertako fauna. Andatza inguruan bizi den kuadrilla batekin zerbait egitea otu zitzaidan eta hortik sortu da Axarkoren abentura.

Horrelako argitalpenak lau eskutara egiten dira maiz. Idatzitakoa margotzeko joera egon ohi da. Kasu honetan ere hala izan al



Ainara Azpiazu Axi, 'Axarko' ipuinaren egilea.

“Ez bagara oreka batean bizitzen naturarekin eta animaliekin, gaizki ibiliko gara...”

da? Ala margotutakoak ere baldintzatu ote du narrazioaren norabidea?

Bide hori izaten da ohikoena, baina nire burutik istorio bat pasatzen da eta gero erabakitzen joaten naiz zer joango den hitzetan eta zer joango den irudietan. Nik

ez nuke jakingo esaten non hasten den gidoia eta non hasten den ilustrazio lana.

Bata bestearen osagarri da, hortaz.

Irudia ere 'irakurri' behar izatea garrantzitsua dela uste dut. Irudia ez dadila apaingarri hutsa izan. Beraz, ezin duzu dena hitzekin kontatu. Zerbait utzi behar diozu irudiari. Geruza gehiago ditu irudiak eta, behin eta berriz irakurri ondoren, ikusiko dituzu hasieran ikusi ez dituzunak.

Ilustrazioek ere hitz egiten dutela esan nahi duzu.

Ilustrazioaren eta arte plastikoaren arteko ezberdintasun nagusietako bat hori da. Ilustrazioak irakurtzeko sortutako irudiak dira.

Axarko azeria da protagonista nagusia eta margotzea maite du. Zure alter egoa dela esan al daiteke? Alegia, Axarko bezalaxe, zu ere petralduta, purrustaka eta etsita sentitzen al zara tarteka?

Izan daiteke, bai. Ipuin hau oso erraz sortu zitzaidan baina beste batzuetan trabatu egiten zait. Trabatatu eta ezin aurrera egin. Horrelakoetan, dena utzi eta mendira joaten naiz buelta bat ematera. Krisi horiek ere lanbidearen parte dira.

“GIZAKIA GIZAKIARI BEGIRA BIZI DA GAUR EGUN”

Axarkorentzat pizgarria izango da basotik herrira jaitea. Zuretzat aldiz, herritik basora joatea izango da motibagarria, ezta?

Ainara Azpiazu 'Axi': Bai, nire pizgarri handienetako bat hori da. Eta erriroa joatea ere bai. Egunero joaten naiz erriroari kasu egitera. Musika entzutea ere izan daiteke, baina barruan lan egiten dudanez, kanpora ateratzeak on egiten dit; mendira joateak edota bizikletan paseo bat emateak. Kontenplazioarekin lotu-

tako zerbait. Burua eta zentzumenak marrazketarekin zerikusirik ez duten beste zerbaitetan jartzeak asko laguntzen dit.

Ipuinean esaldi hau jaso duzu: “Ez dira gizakiak, ordea, inguru hauetako biztanle bakarrak”.

Umetan, etxe batean bizi ginen denak, aiton-amonekin batera, eta animalien gainean hizketan tertulia luzeak egiten genituen. Naturak presentzia handia zuen

gure tertulietan eta, gaur egun, iruditzen zait gizakia gizakiari begira bizi dela. Eta horrek gezurretazko kosmobisio bat ematen duela esango nuke. Ez delako zuzena. Jabetza kontzeptua luzatu diogu munduari eta denaren jabe sentitzen garela dirudi. Baina noiztik gara gu denaren jabe? Noiz asmatu genuen hori? Ez bagara oreka batean bizitzen naturarekin eta animaliekin, gaizki ibiliko gara...

edaritegia

BORDATXO

edaritegia

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

Zarionak eta urte berri on !!

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42

Trekita gaude!

Antxeta

TABERNA-JATETXEA



egunero irekitzen dugu!
eguneko menua (astegunetan)
jaiegunetan: asteburuko menua

ogitartekoak, pintxoak, razioak, oilasko erreak, paellak
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

- GOSARIAK
- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK

OPLGOGO

Okindegia - Kafetegia




Astelehenetik larunbatera 06:00 - 21:00 / igande arratsaldetan itxita
Kale Nagusia 10, 20170 Usurbil - 943 37 45 95



ARRANDEGIA PELLO

EGIN ZURE ESKAERAK
WHATSAPP-ETIKI!



ONDO PASA
GABONETAN!



ASTEARTETIK-LARUNBATERA 8:30-13:30
650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL




Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!



Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

MIROTZ GOGOAN

Mirotz gaztea hil zenetik, Usurbil KE-k urtero antolatu izan du bere omenezko eskubaloi txapelketa eguberrietan Oiardo Kiroldegian. Covid-19 garaiak ez ziren egokiak izan gisa honetako txapelketak antolatzeko, eta beraz, 2020an eta 2021ean ez zuten aukerarik izan txapelketa hau antolatzeko. Aurten, ordea, hamairugarrenez egingo dute Mirotzen omenezko infantil mailako txapelketa.

Abenduaren 30ean, Oiardo kiroldegian
Abenduaren 30ean izango da hori, ostira-

lez, goizeko bederatzieta hasi eta arratsaldeko zortzietan amaituta.

Puntako taldeen topagunea

Mirotz gaztea eskubaloi jokalaria amorratua zen eta Usurbil KE taldean jolasten zuen. Entrenatzaile lanetan ere ibili zen herriko gaztetxoekin. Herritarrak sorpresaz hartu zituen haren heriotzak eta garai samintsuak bizi izan zituzten. Haren omenez, Usurbil KEk infantil txapelketa antolatu izan du urtero (2020 eta 2021ean izan ezik) punta-puntako taldeak Usurbilera ekarrita.



2019an jokatu zen azken aldiz txapelketa hau.

Tel.: +34 943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es

AUTOBUSAK
Aizpurua

Zorionak eta Urte Berri on!



Xabier Larrarte Ezeiza
Enpresaritzan Lizentziatua

Zubiaurrenea, 10 Behea
20170 USURBIL

943 371 807
larrarte@grupolarrarte.com



LARRARTE
ASEGURU ETA INBERTSIOAK S.L.

Patrienea Jatetxea
Bazkariak, asteleheneretik igandera
Afarriak, ostirala eta larunbata

Patxi

kale nagusia 14. USURBIL
t 943 362 725 - 688 690 361



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

Ondo pasa gabonetan!



943 53 72 38
628 45 78 39 - 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com
reformasmonroy.com

Berritze zerbitzu integralen bulegoa
Usurbilgo Kale Nagusiko 35.behean
Sektorean esperientzi zabala

KALE NAGUSIA 35, BEHEA, USURBIL

OHIKO ERREGE KABALGATA BUELTAN DA

Ziortza Gazte Elkarteak urtero Errege Egun Bezperan antolatzen duen kabalgata ohikora itzuliko da aurten bi urtetan ahal moduan egin ostean. Goizeko ekitaldia zein arratsaldeko errege kabalgataz ohiko moduan gozatzeko aukera izango da aurten.

Hilaren 5ean, erregeen laguntzaileak eta postaria herriko frontoian izango dira goizean zehar haurren gutunak jaso eta urte berriko planez hitz egin zein joan zen urtean izandako jarrerari buruz hitz egiteko. 11:30 aldera iritsiko dira frontoira, eta bertan egongo dira eguerdi arte. Ondoren, arratsaldean, laguntzaileak eta postaria erregeekin elkartuko dira gauean ekarri beharko dituzten oparien zerrendak emateko.

Kabalgata Urdaiaगतik abiatuko da arratsaldeko 17:00etan

Errege kabalgata, berriz, 17:00etan abiatuko da Urdaiaगतik. Laguntzaile mordoak izango dituzte erregeek eta zaldiz egingo



Hilaren 5ean, erregeen laguntzaileak eta postaria herriko frontoian izango dira goizean zehar haurren gutunak jasotzen. Erregeak arratsalde partean iritsiko dira.

dute bidea urtero legez. 19:00 aldera iritsiko dira frontoira eta bertan hurrekin

gertutik egoteko aukera izango dute, bai eta mezuren bat edo beste emateko ere.

ZIORTZAK ABENDUAREN 23AN OSPATUKO DU SAN TOMAS EGUNA

Abenduaren 23an ospatuko du Ziortza Gazte Elkarteak San Tomas eguna. Ziortzaren 2022ko azken kale ekintza izango da hau. Askatasuna plazan elkartuko dira arratsaldeko 18:00tan, jolas batzuk egin eta txistorra jateko. Ekitaldi hau DBHko gazte guztiei zuzenduta egongo da.



DBHko gazte guztientzat antolatu dute San Tomas ospakizuna.

Ondo pasa
Gabonetan!



Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua Dermofarmazia
Produktu homeopaticoak Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

*Gabonetako
opari txartelak*

*Zorionak eta
urte berri on!*

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

*Zure bizitza
kolorez bete*

*osasungarriak eta
kimikarik gabe*

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

NOAUA!KO SASKIEK BADUTE JABERIK

NOAUA! tokiko hedabidearen finantziazio-iturri nagusiak hiru dira: dirulaguntza publikoak, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen ekarpena eta publizitate salmenta. Urtero legez, bazkideen eta publizitatea jartzen duten bezeroen ahalegina eskertu nahi izan dugu. Errigorako hiru saski zozketatu ditugu eta hauek izan dira aurtengo irabazleak:

- Josune Urkola Larrarte, NOAUA!ko bazkidea.
 - Miguel Angel Bereziartua Orbegozo, NOAUA!ko bazkidea.
 - Aizpurua okindegia, publizitate arloko bezeroa.
- Zorionak eta on egin!



Josune Urkola Larrarte NOAUA!ko bazkideari Errigorako saski bat egokitu zaio.



Miguel Angel Bereziartua NOAUA!ko bazkidearen oterra emazteak jaso zuen.



Publizitatea jartzen dutenen arteko oterra Aizpurua okindegiari egokitu zaio.

Marije
Arropa denda

facebook.com/marijearropadenda

Etxebeste 3 - 943361106

Rafa

iturgindegia

- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfindatzazko gremlak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

KAMDEN

hizkuntzak

English courses

Merry Christmas to all!!!
See you in January

Ondo pasa Gabonak!!

Ordutegia:
16:00-20:00

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17
www.kamdenhizkuntzak.com

ZENDOIAENEA

taberna

Ondo pasa Gabonetan!

NAGUSIA 35, USURBIL

OLENTZERORI GUTUNAK BIDALTZEKO GARAIA DA

Abenduaren 24an egingo zaio harriera Olentzerori Usurbilen, herritarrek, eragileek eta Udalak lankidetzan antolaturiko hitzorduaren baitan. 17:00etan etorriko da Kalezar aldetik 18:00ak aldera Dema plazan izateko. Tarte horretan, kalez kale ibiliko da ikazkina, galtzagorriez inguratua.

Adi, abenduaren 16tik aurrera, Olentzerorentzako gutunak biltzeko poston-



Postontziak herriko gune ezberdinetan topatuko dituzue.

tziak jarriko dituzte herriko gune ezberdinetan: Udarregi Ikastolan, Aginagako eta Zubietako eskoletan, Santuenea eta

Aginagako zaharren egoitzetan, Sutegi udal liburutegian, ludotekan eta Potxoenean.

*Neguko Jaietako
Eskaintza Berezia*

Eramateko

TXANGURROZ BETERIKO PIPERRAK	6,00 € (3 UNIT.)
URDAIAZPIKO KROKETAK	6,00 € (8 UNIT.)
ARRAI ZOPA TXIRLEKIN (450ML)	5,50 € PERTSONAKO
BAKAILAOA SALTSA BERDEAN	8,50 € PERTSONAKO
TXEKOR MASAILAK (180G)	11,50 € PERTSONAKO

ABENDUAK 20TIK . URTARRILAK 8RA

ARTZABAL
BASERRIA - JAIEETXEA

943 36 91 39

Zorionak eta
urte berri on!



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

ERRAUSKETARIK EZ
LUPRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Rtalu industrialdea 26 ☎ 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com www.alkartasunausurbil.eus

 **antenas
Telemar**

ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

Uraitz, s.l.



**Igeltseritza
Orokorra**

ONDO PASA GABONETAN!

Telefonoa

693 05 93 92

Geltoki Kalea N° 15 Behea LASARTE-ORIA

uraitz@uraitz.com

GABONETAN MUSIKA NAGUSI

Zer lirateke gabonak musikarik gabe? Zumarte Musika Eskolako Saxo Taldeak urteak daramatza filosofia horri jarraiki gabonen bueltan kalera ateratzen, eta aurten ere halaxe egingo dute ostegun honetan, hilaren 22an. Kale kontzertua eskainiko dute 19:00etan hasita. Gabonetako abestiez gain, bestelakoak ere joko dituzte. Lekua zehazteke daukate, eguraldiaren arabera mugitu beharko direlako, baina frontoi inguruan zein Arzabal inguruan ibili ohi dira.

Aurretik, hilaren 20an, abesbatzek elizan egindako kontzertuekin Zumarte Musika Eskola gabon betean sartu da.



Zumarte Musika Eskolako Saxo Taldea abenduaren 22an arituko da.

TXIRIBOGA
TABERNA

Ondo pasa Gabonetan!

GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!

- Arrai zopa
- Txipiroiez betetako pikilo piperrak
- Txipiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean
- Bakaioa (bizkaitar erara)
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!

(1 eta 31rako eskaerak 27rako beranduenez)

943 21 88 40 IRAZU KALEA 6, USURBIL



*Abenduaren 24 ,25 eta 31 eta urtarrilaren 1ean itxita
ondo hasi 2023 urtea!
eta zatoz gure aurtengo sagardoa dastatzera!!*

txinparta
SAGARDOTEGIA

Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak
Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00

HURBILAGO, HERRI BIZITZA ARGIZTATZEKO PREST

Bi biribilgune, Zubiaurrenea eta Errekatxiki kaleak nahiz Kalezarrrera igotzeko bidea lotzen ditue-na eta Bordatxo taberna parekoa. Biak ala biak argiztaturiko etxolez apainduak ditugu, datozkigun egun seinalatuen adierazle. Hurbilago elkarteak jarritakoak dira. Modu honetan, herri bizitza pizten segi nahi du merkatarien eta ostalarien elkarteak, baita ospakizunetz jositako urte amaiera honetan ere.

Lasterketaren itzulera

Etxolez gain, zenbait ekimen iragarri ditu urtea agurtzeko, bi urteko etenaldiaren ostean, Hurbilago San Silbestre herri lasterketaren itzulera tartean. Abenduaren 31n ospatuko da 2019. urtera arte egin zuten moduan. Herri merkataritza eta ostalaritzaren alde korrika egitera animatzen gaituzte. Izena doan eman ahaliko da gertuago.eus atarian alde aurretik edo egunean bertan frontoian, pilotalekuan hasi eta amaituko baita lasterketa. Merkataritza eta ostalaritzaren herri erdiguneko eremua inguratuko du jai giroan ospatuko den urteko azken ekimenak.

Amaieran, inoiz baino sari gehiago banatuko dituzte. Batetik, oparien zozketa parte hartzaileen artean. Eta horrekin batera, "650 Usurbil Bizi" otarrak banatuko dituzte.

Gogoan izan, Hurbilago ere egitasmo



Hurbilago elkarteak herria apaintzen dituzten etxolak ipini ditu beste behin ere.

SAN SILBESTRE LASTERKETA

Herri merkataritza eta ostalaritzaren alde korrika egitera animatzen gaituzte. Izena doan eman ahaliko da gertuago.eus atarian

horren sustatzaileen artean dago, kultur-gunearekin eta Udalarekin batera. Herriko 34 sortzaile eta ekoizleen produktuez osaturiko ehun otar zozketatuko dituzte abenduaren 30ean, ordura arte Hurbilagoren kide diren saltokietan 10 euroko

erosketak egitearen truke. Hilaren 30ean, zozketa egin eta sarituei jakinaraziko zaie. Biharamunean, lasterketa amaieran, otarron banaketa frontoian.

Erosketak aipatuta; merkataria eta ostalarien elkarteak azaroan salgai jarritako erosketa-bonu kopuru berbera jarriko du berriz Hurbilagok herritarren eskura. Bi bonu mota eskuratu ahaliko dira, Usurbilen bizitzeaz gain, bertan erosketak egitea sustatzeko: 7 euroren truke 10 euroko bonua eta 20 euroren truke 30 eurokoa. Gertuago.eus atarian edo Potxoenean eskuratu ahaliko dira asteotan.

HURBILAGOREN URTE AMAIERAKO DEIALDIAK

Abendu amaierara arte

■ "650 Usurbil Bizi" otarraren zozketan parte hartzeko aukera. Zozketan parte hartzeko 10 euroko erosketak egin behar dira abenduaren 30era arte, Hurbilagoren saltokietan.

■ Erosketa-bonuen salmenta.

Abenduak 30, ostirala

■ "650 Usurbil Bizi" otarren zozketa eta

sarituei jakinaraztea.

Abenduak 31, larunbata

■ 17:00 Hurbilago San Silbestre lasterketa.

■ Tokia: Usurbilgo frontoia.

■ Zehaztasunak: urtea herri merkataritza eta ostalaritzaren alde lasterka eginez agurtzeko aukera.

■ Izen-ematea: egunean bertan edo ger-

tuago.eus atarian doan.

■ Lasterketa amaieran:

-Oparien banaketa lasterkarien artean.

- "650 Usurbil Bizi" herriko ekoizle eta sortzaileen produktuez hornituriko otarren banaketa.

Antolatzailea: Hurbilago Usurbilgo ostalarien eta merkatarien elkarteak.

Aguirrezabal Estankoa

Zorionak
eta Urte berri on!

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

GOLDWELL
ELUMEN

i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i



Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK

OBRAK

BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

IT-ak egiten
dira

Onda fusa
sabonetan!

IÑAKIMUSIK DJ-AREKIN SARTUKO GARA URTE BERRIAN

IñakiMusik DJa arduratuko da aurten Urteberrian sartu izana ospatzeko musika jartzeaz. Urtea behar bezala amaitu eta hobeto hasteko hainbat ekitaldi klasiko izango dira herrian, bai eta berrikuntzaren bat edo beste, eta herriar askorentzat ezin garrantzitsuagoa den DJa ere frontoian izango da.

2020ari ongi etorria ematen hura izan zen frontoian, eta pandemia garaiko 3

urte hauen ostean, bueltan izango da 2023a hartzeko. 2022an sartzeko ere haren musika saioa aurreikusi zuen Udalak, baina azken momentuan egindako dekretuaren ondorioz, bertan behera geratu zen haren saioa ere.

Denetariko musika, denontzat

Denetariko musika jarriko du aurten herriarrentzat ezkontza eta jai pribatuetan espezializatuta dagoen DJ honek.



Frontoian izango da Dj festa.



TXAPELDUN JATETXEA


EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK-RAZIOAK
HANBURGESA BEREZIAK

Ondo pasa
GABONETANI!

eramateko erel

943 21 34 03  638 16 54 67

MUNA LURRA 2, USURBIL



ATXEGA JATETXEKO LAN TALDEAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!
urtarrilaren 5ean berriro zuen zerbitzura!

Zorionak eta
urte berri on!

·EGUNEKO MENUA: (asteleneetik ostiralera) ·EGUNEKO PLATERA
·ASTEBURUKO MENUA ·KARTA ·RAZIOAK ·OGITARTEKOAK ·PINTXOAK..

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

Elexpe
Ukaparandegia

Zorionak!

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta
etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12 • ☎ 943 370 462

ITZIRA
BARRIKUNTZAK

Zorionak eta urte berri on!

943 530 337
607 119 313

- gremioen koordinaketa •berritze lanak
- sukaldeak •komunak • mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

txirriStra
TABERNA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak
Etxeko hanburgesak

Zorionak eta urte berri on!

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

MIKEL
ARRANDEGIA

MIKEL ARRANDEGIA

Zorionak eta urte berri on!

San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

GABONETAN MURGILDUTA DAGO SANTUENEA

Usurbilgo kaxkoan hainbat ekitaldi izango dira Gabonetan, baina baita auzoetan ere. Auzoetako elkarteek buru-belarri egin dute lan aurtengo Gabonak aurreko biak ahazteko modukoak izan daitezen. Santuenean, San Tomas Egunean (hilaren 21ean), txistorra-banaketa egingo dute nahi duten guztientzat Santuenea elkartearen atarian.

Abenduak 21, asteazkena

■ 18:30 San Tomas Eguneako txistorra-banaketa, Santuenea 12 atarian, Dj Gorka-Mendiren musikarekin.

Abenduak 24, larunbata

■ Olentzerorekin kantuan.



laz bezala, aurten ere Dj Gorkamendik girotuko du San Tomas azoka.




**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01
pikabea@pikabeaaseguruak.com



Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



“Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe:
lana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.”

Xabier Lete

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



EKITALDI UGARI GABONEN BUELTAN

Abenduak 22, osteguna

- Goizean zehar, Udaregi Ikastolako San Tomas festa eta kantu-jirak herrian barrena. Antolatzailea: Udaregi Ikastola.
- 18:00 Urteko azken udalbatzarra. Deitzailea: Usurbilgo Udala.
- 19:00 Saxo Taldearen kale kontzertua. Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Abenduak 23, ostirala

- Aginagako eta Zubietako eskolako kantu-jirak.
- 11:00 LH 5-6 mailetako ikasleentzako irakurketa-solasaldia liburutegian Yolanda Arrietarekin. Bere "Nitaz ahaztu dira" liburua hartuko dute ahotan. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
- 18:00 Ziortzakoen San Tomas festa Askatasuna plazan. Antolatzailea: Ziortza.
- 18:00 "Erraustegiaren kutsaduraz azken berriak" ekitaldia Potxoenean. Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.
- 18:00 Olentzeroren etorrera Aginagara Sekañatik. Gutun bilketa Eliza Zaharrea. Antolatzailea: Eliza Zaharra elkargunea.
- 20:00 "Kantuz etxera bidera gertu" ekitaldia Sutegin. Antolatzailea: Sare.

Abenduak 24, larunbata

Olentzerori harrera ekitaldiak eta kantu saioak

- Aginaga: 09:00 Kantu-jira etxez etxe elizatik abiatuta. 15:00ak alderako Aginaga kaxkoan. Antolatzailea: Katekesi taldea.
- Santuenea: Olentzerorekin kantuan.
- Zubietara: 16:00 Kantu eskea Artzaballetatik abiatuta. Antolatzaileak: herritar talde bat.
- Kalezar-Kaleberri: 17:00 Olentzeroren etorrera Kalezartik.
- 18:00ak inguruan harrera Dema plazan. Oharra: abenduaren 16tik aurrera pos-

tontziak herriko gune desberdinetan. Antolatzaileak: herritarrak, eragileak, Usurbilgo Udala.

Abenduak 26-28

- 11:00-13:00/16:30-19:30 Gabonetako Haur Parkea Oiaro Kiroldegian 2-12 urte artekoentzat. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 26/29

- 16:00-21:00 Irteerak Gaztelekutik Donostiako Txuri Urdinera. Antolatzailea: Gaztelekua.

Abenduak 27, asteartea

Ernai eta Ikamaren topaketa:

- 11:30 "Hezkuntza eta osasun mentala" mahaingurua Gazte Lokalean.
- 16:30 "Sexualitatea deseraikitzen" tailerra Gazte lokalean.
- 18:30 Poteo olinpiadak Aitzagatik.
- 21:00 Afaria Aitzagan.

Abenduak 28, asteazkena

- 18:00 Mahaingurua Sutegin: "Ingurumena, ekologismoa eta energia. Zein eredu nahi dugu Usurbilen?". Hizlariak: Mikel Otero, Alazne Arruti eta herri mugimenduko kide bat. Antolatzaileak: Usurbilgo Ernai, Sortu eta Aitzaga elkarteak.

Abenduak 29, osteguna

- 19:00 "Bi arnas" proiektuaren aurkezpena eta dokumentalaren proiektzioa Sutegin. Antolatzaileak: Usurbilgo Ernai, Sortu eta Aitzaga elkarteak.

Abenduak 30, ostirala

- 9:00-20:00 Mirotsen omeneko infantil mailako 13. Eskubaloi Txapelketa Oiaro Kiroldegian. Amaieran, sari banaketa.

Antolatzailea: Usurbil Kultur Elkarteak.

- 19:00 "Egia bide, askatasuna amets" ekitaldia frontoian. Antolatzaileak: Usurbilgo Ernai, Sortu eta Aitzaga elkarteak.

Abenduak 31, larunbata

- 17:00 Hurbilago San Silbestre herri lasterketa. Segidan, oparien zozketa parte hartzaileen artean eta "650 Usurbil Bizi" otarren banaketa (zozketa bezperan). Antolatzailea: Hurbilago elkarteak.
- 20:00 Preso, iheslari eta deportatuena aldeko topa berezia Dema plazan. Antolatzaileak: Usurbilgo Ernai, Sortu eta Aitzaga elkarteak.

Urtarrilak 1, igandea

- 01:00 Inaki Musik Dj-a Usurbilgo frontoian. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Urtarrilak 5, osteguna

- 11:30 Erregeen postaria frontoian.
- 17:00 Erregeen kabalgataren hasiera.
- 19:00 Erregeen kabalgatari harrera frontoian. Antolatzailea: Ziortza K.E.

Urtarrilak 7, larunbata

- 17:00 Manifestazioa Bilbon, "Etxera bidea gertu" aldarripean. Autobus zerbitzua Usurbildik. Antolatzailea: Sare.

Erakusketak

Abenduaren 31ra arte

- Hiria Antolatzeko Plan Orokorriari lotutako erakusketa Sutegin. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Urtarrilaren 7ra arte

- Usurbilgo 2022ko sorkuntza uztaren erakusketa Sutegin. Antolatzaileak: Sutegi udal liburutegia eta NOAUA! Kultur Elkarteak.

ARANKA

BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 722 297 867 USURBIL

noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarrizko bultzada izan zuen Noaua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

40€
URTEAN

30 urte baino gutxiago dituzu? Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

25 € / URTEAN*

* 30 urte bete baino gutxiago dituzela bazkide gisa automatikoki bazkide gisa hartzen zaituzte.

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortpenon hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheto inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez noaua.eus/bazkide



Telefonoz 943 360 321

Izena _____

Abizenak _____

Nortasun agiria _____

Helbidea _____

Herria _____

Posta kodea _____

Telefonia _____

Posta elektronikoa _____

Kontu zenbakia (IBAN) _____

Bazkide mota Arrunta (40 €) <30 urte (25 €)

Jaiotze data _____

*Osasuna eta askatasuna!
Urte berri on!*



Ustrilgo Udaia